

FUTBOLA

Orain Errekopa Txapelketa eskuratzea
da Barcelonaren hurrengo helburua

Ostegunean ospakizunetan jarraitzeko asmoa azaldu dute kataluniarrek

Barcelona taldeko jokalariei bukatu zaie ospakizunetarako garaia. Bihar jokatu behar duten Errekopako Finalerako prestakizun lanetan daude jadanik. Aste berean bi titulu irabazteko gai direla erakutsi nahi dute Johan Cruyffen mutilek.

BARCELONA

«Ostegunean bueltatuko gara», «Barça txapeldun», «Aurten bai», «Txapeldunak gara»... bezalako tituluak irakurtzeko aukera zegoen atzo Barcelonako komunikabideetan. Bost urteko «atsedenaldiaren» ostean Johan Cruyffen taldeak hamaikagarren Liga eskuratu du.

Realak eta Atletico de Madridek Atotxan jokatu zuten partidua bukatu bezain pronto Barcelonako kaleak jarraitzailez bete ziren. Camp Nouk abiatu eta Barcelonako jokalariek Udaletxea eta Generalitatea bisitatu zituzten. Johan Cruyffek zuzentzen dituen jokalariek banan banan agurtu zuten bakoititik. Barcelonako futbol taldean funtsezko jokalaririk bilakatu diren euskal jokalariek harrera berezia izan zuten

GOIKOETXEA
NEESKENSEN
MODURA

Euskaldunen artean Txiki Begiristain izan zen lehena. Olaberriako jokalariek gogoan ditu Realean egin zituen urteak. Kataluniarren jaira Euskal Herria gehitu nahi izan zuen Begiristainek, eta honela bukatu zuen bakoititik egin zuen «hitzaldia»: «Visça Barça, Visça Catalunya eta Gora Euskadi».

Salinas, Bakero, Zubizarreta, Alexanko, Rekarteren... hitzek ere harrera polita izan zuten. Baina ez bairrik gabe Barcelonako jarraitzaileek Goikoetxeari eginko harrera izan zen beroena. Osasuna eta Realetik pasatako gizonak izugarritzko denboraldia burutu du aurten eta atzokoan horren ordaina jaso zuen. «El Mundo Deportivo» egunkari ka-



Hamar bat mila lagunek egin zioten harrera Barça txapeldunari.

✓ Txiki Begiristainek «Visça Barça, Visça Catalunya eta Gora Euskadi» esan zien Barcelonako jarraitzaileei Udaletxeko bakoititik.

taluniarreko kazetariak atzokoan idazten zuten, «Johan Neeskensen garaitik inoiz entzun den txalo sorta handiena entzun zuen igandean Jon Andoni Goikoetxeak».

Jokalarik nafarra pozez gainezka zegoen. Atzokoaren ostean gauza bat besterik ez zuen esan, «Barcelonako jarraitzaileei eskerrak ematea besterik ez zait falta, eta hemen geratzen naizela».

JADANIK Ospakizunetarako denborako denbora oso urria da kataluniarrentzat. Ligako txapeldunak

jadanik Rotterdamen daude. Bihar Manchester Uniteden aurka jokatu behar dute denboraldiko bigarren txapelketa eskuratzeko. Honela mintzatzen zitzaizen Cruyff zaletuei Udaletxeko bakoititik, «ikurriak hemen bertan utzi ostegunean bueltatuko bait gara».

Barcelona jadanik Holandan dago. Gaur bi entrenamendu egingo dituzte jokalariek, goizez Blauw Zwart zelaian eta arratsaldean bihurtuta finala jokatu den De Kuipen. Finala ikusten Barcelonako hamabost mila jarraitzaile izango direla espero dute kataluniarrek.

Euskal jokalariek zenbakitan

	JP	JM	G
Zubizarreta	34	3.060	0
Goikoetxea	33	2.769	3
Bakero	32	2.721	13
Salinas	30	1.751	10
Begiristain	29	2.214	6
Alexanko	18	1.449	2
Rekarte	13	309	0

JP: Jokaturako partidua

JM: Jokaturako minutuak

G: Golak

xankok 18 partidutan jokatu du eta Rekartek 13tan. Azken honek 309 minutu besterik ez ditu jokatu Barcelonarekin.

Juan Antonio Goikoetxearen ustez, «Euskal jokalariek sakrifizioa ahalmenez gehiago eman diogu Barcelonari».

Euskal jokalariek «Euskolonako»
funtsezko jokalaririk bilakatu dira

BARCELONA

Aurtengo Barcelonak aurreko urteetakoek baino zerbait gehiago du. Zerbait hori euskal jokalarien aportazioa da dudarik gabe. Cruyffek eskuarki zelairatzen duen hamaikakoan Zubizarreta, Bakero, Begiristain eta Goikoetxea «fijoak» dira. Bostgarren bat, Julio Salinas, askotan zelairatzen du entrenatzaile holandarrak.

Guztien artean Andoni Zubizarreta da gehien jokatu duena. Liga txapelketa honetako 34 partidua osorik jokatu ditu Aretxabaletakoak, guztira 3.060 minutu. Juan Antonio

Goikoetxea nafarrak partidu bakarra galdu du aurtengo denboraldian, eta guztira 2.769 minutu jokatu ditu. Jose Mari Bakero ere 2.700 minutu mugatik gora dago, 2.721 hain zuzen ere (31 partidutan).

Julio Salinas bilbotarra laugarren euskal jokalaria da partidu kopuruan (30 partidu) baina minutuei dagokierik 1.751 besterik ez ditu jokatu. Txiki Begiristainek Salinas baino partidu bat gutxiago jokatu du, baina minutu gehiago egon da zelaian, 2.214 hain zuzen ere. Beste biak, Lopez Rekarte eta Alexanko kapitaina, izan dira Cruyffek gutxien zelairatu dituen euskal jokalariek. Ale-

SASKIBALOIA

Portland eta L.A. Lakers taldeak
3-1 aurreratu dira Mendebaldean

NEW YORK


Portland Trail Blazers eta Los Angeles Lakers 3-1 aurreratu dira NBAko Mendebaldeko Konferentziaren final erdietan, Utah Jazz eta Golden State Warriorsen etxean kanporaketako laugarren partidua irabazi ondoren. Zazpi partidutik onenera erabakiko da finalerako txartela, eta garaipen bakarraren faltan dira beraz Portland eta Lakers. Chicago Bulls ere hauen parean da Ekialdean, Philadelphia 76ers taldeari etxean irabazi eta gero.

Utah Jazz taldearen kantuan Portlandek garaipen estua lortu zuen (104-101), partidua amaitzeko segundu gutxiren faltan, Clyde Drexlerrek Karl Malone-ri lapurtutako baloiari esker. Kevin Duckworth pibota izan zen Portlandeko artean saskiratzaile onena 30 puntuekin. Karl Malonek 31 lortu zituen ordea, 12 errebotez gain, eta Utah Jazz taldekoak partidu bikaina egin zuen, berdinketarako aukera zuenean baloia galdu arren. Jeff Malone (23) izan zen lagun onena Utah Jazzen, eta Portlanden Terry Porter ere bikain ibili zen, 20 puntu saskiratuz.

LAKERSEK
JIPOIA
WARRIORSI

Mendebaldeko beste final erdian, Golden State Warriorsen porrot egin zuen Los Angeles Lakersen kontra 107-123. Oakland Coliseum Arenan Sam Perkins (27 puntu), Byron Scott (21) eta Magic Johnson (21) izan ziren Californiako taldean onenak, eta beste garaipen bat lortuz gero hamar urtean bederatzigarren aldiz sailkatuko dira Konferentziako finalera.

Atzoko emaitzen ondotik, Portland eta Lakers taldeek parada ezin hobea dute Mendebaldeko



Cartwright eta Jordan.

finalera sailkatzeko. Kanporaketak hasi zirenean faborito agertzen baziren, final erdietan Utah Jazz eta Golden State Warriors baino indartsuagoak direla erakutsi dute, eta eskura dute finalerako txartela.

EKIALDEAN
CHICAGO
INDARTSU

Ekialdeko Konferentzian berriz, Chicago Bulls taldeak 85-101 irabazi zion Philadelphia Sixersi, eta kanporaketan 3-1 aurreratu dira Michael Jordan eta konpainia. Etxeko bi partidua irabazi ondoren, Philadelphia-ko estraineak 99-97 galdu zuen Chicago Bullsek. Bigarrenean ez du barkatu ordea, eta abantaila nabarmenaz nagusitu dira, Ekialdeko finala jokatzeko garaipen bakarraren faltan gertatuz. Boston Celtics eta Chicago aurrikusten dira kanporaketa gaingitu eta finalera iristeko aukera handienak dituzten taldeak Konferentzia honetan.

Norrisen faltan, Barcelonak 2-0
atzeratzeko arriskua Badalonan

BADALONA

Montigala Joventutek eta Barcelonak ACB Ligako finalaren bigarren partidua jokatu dute gaur Badalonan, estraineakoan Lolo Sainzen mutilek 73-65 irabazi ondoren. Igandean eroso jokatu zuen Joventutek, eta erasoan oso fin ibili ez arren, ez zuten arazorik izan kanporaketa beren alde jartzeko. Gaur ere, Audie Norrisen faltan, saskipean nagusitzeko larri ibiliko da Barcelona, Cory Thompsonen egun ona izaten badu.

Marka guztiak hautsi behar zituen Barcelona ez da fin iritsi denboraldi amaierara. Andres Jimenez eta abarren lesioak ondo gaingitu badiu ere denbora luzean, Audie Norrisen hutsa zama astunegia bihurtu da Maljkovicen taldearentzat. Europako Koparen finalean Toni Kukocen

Pop'84 taldearen kontra porrot egin eta gero, ACB Ligako titulua ere zail jarri zaio txapeldunari.

Igandean izugarritzko arazoak izan zituen Barcelonak saskiratze oso zaila. Aurreneko zatian 27 puntu besterik ez lortzea honen erakusgarria da. Eta amaieran markagailuak 8 puntuko aldea besterik erakusten ez bazuen ere, Joventutek goitiki ez bazuen ere, Joventutek osoan behera agindu zuen partidu osoan zehar. Thompsoni esker, batez ere Thompson Joventutek behar zuen anti-Norrisa bihurtzeko ekarri zuen Badalonara; azken urteetan ACB taldearen jokalari garrantzitsuenari aurre egiteko, alegia. Baina honen faltan, Barcelonak aurreratu behar du. Thompsona moldatu beharko du titulua irabazteko aukerarik izan nahi badu. Bost partidutik onenera erabakitzen den finaleko aurreneko partidua horrela erakutsi zuen, bederen